

San Telmo Museoa *Erritu* ikuskizuna dakar, Kukai Dantza taldearen eskutik, uztailaren 9, 10 eta 12an

Kukai Dantza taldeak eta Sharon Fridman koreografoak sortutako ikuskizuna programatu du San Telmo Museoa uztailaren 9an, 10ean eta 12an. Museoko elizan burutuko dira emanaldiak, 9an 20:00etan, 10ean 20:00etan eta 12an 19:00etan hasita. Sarrerak museoan bertan eros daitezke jadanik, 15 eurotan.

Kukai Dantza eta Sharon Fridman koreografo ospetsuaren arteko topaketa da *Erritu*. Taldeak ikuskizunari buruz diona: “*Erritu*” bizi-bidaia bat da, eta bizitzaren egoera desberdinak zeharkatzen ditu, naturari eta komunitateari dagokienez, banakako eta taldeko igarotze-errituen bidez. Jaiotzatik kaosera, bakardadearen basamortutik, topaketara, maitasunera eta, azkenik, heriotzara iristen diren egoerak.

Errituak zubi dira gure existentzia indibidualaren -iraganaz, orainaz, etorkizunerako promesaz eta aukeraz betea- eta esperientzia kolektibo erritualizatuaren -erreferentziala beti, baina baita mugimenduan eta aldaketan ere- arteko loturen zentzua aurkitzen saiatzeko. Espiritualtasuna, samurtasuna eta erabaki pertsonala elkarri eskutik helduta, finean kolektiboa den bidaian, kontzienteen ibilbideen eragina duen arren.

Erritu-n dantza ulertzeko bi modu elkartzen dira. Bi hizkuntzen arteko desberdintasuna aberastasuna eta erakargarritasuna dira. Sharon Fridmanen lanak fisikotasun eta mugimendukalitate berri bat eskaintzen die Kukaiko dantzari, *contact* delakoan oinarritutakoa, bere ohiko mugimenduen garbitasun eta bizitasunarekin modu aberatsean kontrastatzen eta osatzen duena.”

Sarrerak 15 eurotan daude salgai, jadanik museoko leihatilan -museoko eta Donostia Kulturaren bazkideentzako ohiko deskontuarekin- eta Donostiako Turismo bulegoan eta laster turismoren webgunean ere -SSCard /Basque Card deskontuarekin-. Museoa koronabirusaren aurrean hartu beharreko segurtasun neurriak hartuko ditu, eta publikoak maskara jarrita izan beharko du.

Erritu, de Kukai Dantza, llega al Museo San Telmo los días 9, 10 y 12 de julio

El Museo San Telmo ha programado para los días 9, 10 y 12 de julio el espectáculo *Erritu*, creado por Kukai Dantza y el coreógrafo Sharon Fridman. Se celebrará en la iglesia del museo, el 9 y el 10 a las 20:00 horas y el 12 a las 19:00 horas. Las entradas están ya a la venta en el propio museo, a un precio de 15 euros.

Erritu supone el encuentro entre Kukai Dantza y el prestigioso coreógrafo Sharon Fridman. Así describe el grupo este espectáculo: “*Erritu*’ es un viaje vital que atraviesa mediante ritos de paso individuales y colectivos los distintos estados de la vida en relación con la naturaleza y con la comunidad. Estados que van desde el nacimiento al caos, pasando por el desierto de la soledad, hasta llegar al encuentro, el amor y, finalmente, la muerte.

Los ritos ejercen a modo de puentes para intentar descubrir el sentido de las conexiones entre nuestra existencia individual -cargada de pasado, presente, promesas de futuro y opciones- y la experiencia colectiva ritualizada, siempre referencial pero también en movimiento y cambio. Espiritualidad, ternura y decisión personal se dan la mano con un viaje que, al final, resulta colectivo pero influido por las trayectorias de los más conscientes.

En *Erritu* se funden dos modos de entender la danza. La diferencia entre los dos lenguajes está la riqueza y el atractivo. El trabajo de Sharon Fridman ofrece a los y las bailarinas de Kukai una nueva fisicalidad y calidad de movimiento basada en el contact, que contrasta y complementa ricamente con la pureza y vitalidad de sus movimientos habituales.”

Las entradas están ya a la venta al precio de 15 euros en el propio museo -con el descuento habitual para socios/as del museo de Donostia Kultura- y en la oficina de turismo y pronto lo estarán también en la web de turismo -en el caso de turismo, con descuentos para SScard /Basque Card-. El museo tomará las medidas necesarias para asegurar la protección frente al coronavirus, y será necesario el uso de la mascarilla por parte del público asistente.